

MATERIALISMO HISTERIKOA

Madalenak



UXUE APAOLAZA LARREA

Prousten madalena aipatzeak ia debekatuta behar luke da-goeneko, baina ia behartuta nago aipatzera. Ez dira egun asko batekin topo egin nuela, eta sei urte nituen garaira eraman nau. Udalekuetara, Goñira. Orduan sei-zazpi urtekoentzat bazen astebeteko eskaintza bat, eta ni, nola ez animatu egin nintzen, gero, han nengoela, nire zapata bat gorde behar izan nuen arren negar egiteko aitzakiaren bat izateko: "Zapata galdu zait", gurasoak ikusi nahi ditut esan ordez. Gauetan, norbaiti bururatu zitzaion haur guztiak oheratu ondoren, ideia ona zela bozgorailuetatik nobela bat irakurtzea, gau bakoitzean zati bat. Ez dakit zenbat ulertuko genuen, badakit ni desiatzen egoten nintzela erdi ulertzen nuen zera hura entzuteko. Orduan ez nekien "nobela", gutxiago "beltz".

Urteak pasa behar izan zuten etxean nobela bat irakurtzen hasi, eta gogoia litera haietara joateko. "Hau zen, hau zen!". Madalena. Harrituta, buruko zokoren batean gordeta nituen pertsonaia, aldarte, giroa... hain konpartituak zirelako, ez ezkutu zerbait. Eta hain misterioitsuak iruditutako pertsonaiak, egoerak... ez ziren hainbeste, baina eusten zioten oraindik. Eta barru-barrutik eskertu nion gauetan hurrei nobela beltz bat irakurtzea bururatu zitzaion hari opari hura egin izana. Nik ere ez nuke egingo, gutxiago gaur egun, agian. Ondo ulertu ez nuen hark, horretxegatik, agian, marka sakona utzi zidan nonbait, iradokitzen zidana orrialde haietatik harago baitzihoan, iradokitzen zidana literatura bera baitzen. *Hamabost egun Urgainen*. Eta duela egun gutxi, madalenak madalena gogorarazi zidan.

Garai batean, nago, gutxiago adinkatzen, mailakatzen zen, eta behar ez genuen sustoren bat hartuko genuen, baina go-goan iltzaturik zenbat inkognita eder. Ulertu ez genuena modu berezian gogoratzen dugu, madalenek galdera itxura izaten dute maiz. Orain, beste ero batzuek *Hamabost egun Urgainen* hura berreskuratu dute. Irakurri, ez dagokienei. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Langile borroka

Soldata kontzeptu guztiak inflazioarekin lotzeko eta lanaldia eta behin-behinekotasuna murrizteko protesta egin dute ekainaren 5ean, Michelinek Euskal Herrian dituen bi lantegietan, Gasteizen eta Lasarte-Orian. Antza denez, lan ituna adosteko jarrerak oso urrun daude.

Presoak

Hirugarren gradua kenduta, Basauriko espetxera itzuli dute Joseba Borde Ugaoko euskal preso politikoa. Espetxe Zaintzako Epaitegiak errekurtsioa ebatzi bitarte espetxean jarraitu beharko du. 20 urte egin ditu kartzelan 64 urteko preso ugaoztarrak. 2019an bete zituen zigorraren hiru laurdenak.

Kazetaritza

Berria egunkariko zuzendaritza Amagoia Mujika Tolaretxipik hartuko du. Martxelo Otamendi 30 urtez izan da *Euskaldunon Egunkariako* eta *Berriako* zuzendari, eta erretiroa hartuko du. Mujika 1995etik aritu da bi hedabideetan kazetari, eta azken urteetan zuzendariorde izan da.